

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

2659

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 19koa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako interkonexio-sistemen egokitzapenaren erantzukizunpeko adierazpenerako eredu argitaratzen duena. Agindu horren bidez, joko-makinen betekizun eta ezaugarri teknikoak, interkonexio-baldintzak eta makina horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko beharrezkoak diren sistemak arautzen dira.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.35 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio kasinoen, joken eta apustuen arloko eskumen eskusiboa, elkarrekiko ongintzako kirol-apustuak izan ezik. Eskumen hori baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea onartu zen, eta lege horrek ahalmena ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari bertan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko xedapenak emateko.

Lehen lehendakariorde eta segurtasuneko sailburuaren 2023ko abenduaren 5eko Aginduak, joko-makinen betekizun eta ezaugarri teknikoak, interkonexio-baldintzak eta horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko beharrezkoak diren sistemak arautzen dituenak, interkonexio-sistematarako betekizun berriak arautzen ditu 15. artikuluan eta hurrengoetan.

Agindu horren beraren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, barneko eta kanpoko interkonexio-sistemak erregulazio berrira egokitu beharko dira 18 hilabeteko epean. Jokoa Arautzeko Agintaritzak zehaztuko du zein formatutan egin behar den.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

120/2016 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoak ahalmena ematen dio Segurtasuneko sailburuari dekretua garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak ezar ditzan.

Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, Jokoa Arautzeko Agintaritzak ezarri beharko du interkonexio-sistemak egokitzeko aurkeztu beharko den erantzukizunpeko adierazpenaren formatua.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian erantzukizunpeko adierazpenaren eredu argitaratzea, Joko-makinen betekizun eta ezaugarri teknikoak, interkonexio-baldintzak eta horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko beharrezkoak diren sistemak arautzen dituen 2023ko abenduaren 5eko Aginduari egokitzeko interkonektatutako sistemak.

Bigarrena.— Interkonexio-sistema baten homologazioa aldatzeko prozeduran erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko prozedura bat gaitzea, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/baimena/si-funtsezko-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 19a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
NEREA ALDAY GARATE.

ERANSKINA

INTERKONEXIO-SISTEMAK EGOKITZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA,
2023KO ABENDUAREN 5EKO AGINDUAREN HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORREAN
JASOA

Sistemaren identifikazioa:

- Erregistro-zenbakia: SI-_____
- Sistemaren izena: _____
- Sistema-mota (barnekoa/kanpoko): _____

Eskatzailea:

- Fabrikatzailea/enpresa inportatzailea/merkaturatzailea: _____
- Eskatzailearen IFZ: _____
- Fabrikatzailearen/enpresa inportatzailearen/merkaturatzailearen inskripzio-zenbakia: _____

2023ko abenduaren 5eko Aginduan ezarritakoa betetzea:

- Gehieneko saria eman behar den partida-zikloaren, diru-kopuruaren edo beste edozein parametro egiaztatgarriren deskribapena:

- Interkonexio-sistemak mekanismorik edo gailurik baduen, haren funtzionatzeko modua zehaztuta (aurretik jasota ez badago):

- Joko-programaren softwarea identifikatzea, gutxienez bi algoritmo erabiliz, CRC32, MD5 eta/edo SHA1 algoritmoen artean (eskaera honi joko-programaren kopia erantsi zaio):

A. Joko programaren izena: _____

B. Joko programaren CRC32, MD5 eta/edo SHA1 (gutxienez bi):

- Monitoreak: bete A edo B, dagokiona.

A) Makina guztiek monitore txertatua dute.

- Monitoreetan jasotzen da 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 19.6. artikuluan adierazitako informazioa (BAI/EZ):
- Monitoreetan jasotzen da 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 23.2. artikuluan adierazitako informazioa (f letra izan ezik) (BAI/EZ):
- Monitoreetan jasotzen da 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 29.3. artikuluan adierazitako informazioa (BAI/EZ):
- Monitoreetan jasotzen da 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 29.4 artikuluan adierazitako informazioa (BAI/EZ):

B) Makina guztiek ez dute monitore txertaturik, eta gutxienez 48 hazbeteko monitore bat edo gehiago daude:

- 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 19.6. artikuluan adierazitako informazioa jasotzen da (BAI/EZ):
- 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 23.2. artikuluan adierazitako informazioa jasotzen da (BAI/EZ):
- 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 29.3. artikuluan adierazitako informazioa jasotzen da (BAI/EZ):
- 2023ko abenduaren 5eko Aginduaren 29.4. artikuluan adierazitako informazioa jasotzen da (BAI/EZ):
- Adierazi nola identifikatzen den monitore txertaturik ez duen makina saritu bat.

INTERKONEXIO-SISTEMAK MONITORIZATZEKO ETA KONTROLATZEKO SISTEMA

- Administrazio publikoen lineako konexio-modua (sartzeko modua, erabiltzailearen beharra, pasahitza edo datuak eskuratzeko beste formatu bat eta komunikazioa zifratzeko sistema zehaztu):

- Adierazi nola emango zaizkion Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari interkonexio-sistema hori duten lokal bakoitzera sartzeko datuak:

- Egiaztatu Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak deskarga ditzakeen datuen txostenak edo iraulketak honako informazio hau jasotzen duela (gutxienez datu horiek guztiak jasotzea nahitaezkoa da):
 - Irakurketaren data eta ordua (BAI/EZ):
 - Sistemaren identifikazioa
 - Sistemaren homologazio-erregistroaren zenbakia (BAI/EZ):
 - Fabrikazioaren urtea eta serie-zenbakia (BAI/EZ):
 - Instalazio-data (BAI/EZ):
 - Homologatutako sistemaren CRC32, MD5 eta/edo SHA1 (BAI/EZ):
 - Sistemara konektatutako makina bakoitzeko sarrera guztien eta indibidualen erregistroa (BAI/EZ):
 - Jackpot sariak (BAI/EZ):
 - Baimendutako gehieneko jackpota (BAI/EZ):
 - Jackpote zenbatekoa, sistemaren arabera entregatuta:
 - Eguna eta ordua (BAI/EZ):
 - Zenbatekoa eurotan (BAI/EZ):
 - Saritutako makinaren identifikatzailea (BAI/EZ):
 - Guztizko sarreraren kontagailuaren egoera une horretan (BAI/EZ):
- Abiatze-zikloa:
 - Partiden ziklo jakin bat, diru-kopuru jakin bat edo gehieneko saria emateko beste edozein parametro egiaztagarri (BAI/EZ):
 - Uneko partidaren ziklo-zenbakia (BAI/EZ):
 - Egungo zikloan egindako partiden kopurua, egungo zikloko diru-kopurua eta gehieneko saria eman dela egiaztatzeko ezarri den sistema dagoen beste edozein parametro egiaztagarri (BAI/EZ):
 - Uneko zikloan gehieneko sariren bat eman bada, zenbatekoa, eguna eta ordua (BAI/EZ):

Eskatzaileak adierazi nahi duen informazio gehigarria:

Deklaratzen dut dokumentu honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eta betetzen dituztela lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko abenduaren 5eko Aginduan jasotako betekizunak. Agindu horren bidez arautzen dira joko-makinen betekizun eta ezaugarri teknikoak, interkonexio-baldintzak eta makina horiek kontrolatzeko eta ikuskatzeko beharrezkoak diren sistemak.

Data eta tokia.